

Lauberri

2022ko urtarrila– enero 2022

Zer ikasi nahi dozu batxilergoa eta gero?

¿Qué quieres estudiar después de Bachillerato?

(2.orr.)

Ikastola, txikienei eta haien familiei zabalduz

Abrimos la ikastola a los más txikis y sus familias

(2.orr.)

Elkarrizketa sakonean

Entrevista en profundidad

(3.orr.)

Lau hitzetan, agenda eta gehiago!

(4. orr.)



Ongi pasatzea eta aldi berean ikastea

Txikiek beraien inguru hurbila zentzumenekin aztertuz (ukituz, usainduz, dastatuz, entzunez...) eta batez ere sentituz ezagutzen eta ulertzen dabe. Ezinbestekoa da, beraz, horretarako une eta espazio estimulagarrietan parte hartzeko aukera eskaintzea.

Gure ikasleek, talde txikietan, Gela Multisensorial magikoan murgiltzeko eta gozatzeko aukera dauke Haur Hezkuntza guztian zehar. Ikusi bestela ondoko bideoan!

“

Los y las pequeños-as conocen y comprenden su entorno cercano analizando con los sentidos (tocando, oliendo, saboreando, escuchando) y sobre todo sintiendo. Es imprescindible, por tanto, ofrecer la posibilidad de participar en momentos y espacios estimulantes para ello.

Nuestro alumnado, tiene la oportunidad de adentrarse y disfrutar de la mágica Aula Multisensorial a lo largo de toda la Educación Infantil. Te invitamos a conocer este espacio por ti mismo-a en el siguiente video



”

“

¿Qué quieres estudiar después de Bachiller?

Hay ocasiones en las que la decisión está clara, pero en la mayoría de los casos hay más de una opción en mente.

La información, ayuda y con esa intención, celebramos una feria de Orientación, donde los alumnos y alumnas del último curso de Bachillerato y sus familias, tuvieron ocasión de acercarse a Universidades distintas y conocer los estudios que cada una de ellas ofrece.

”

Zer ikasi nahi dozu batxilergoa eta gero?



Batzuetan erabakia argi dago, baina gehienetan aukera bat baino gehiago dago buruan. Informazioa eta laguntza eskaintzeko asmoz, larunbat honetan Orientazio Azoka ospatu dogu.

Bertan, Batxilergoko azken ikasturteko ikasleek eta haien familieek unibertsitate ezberdinetara hurbiltzeko eta horietako bakoitzak eskaintzen dituen ikasketak ezagutzeko aukera izan dabe.

Unibertsitateen artean, honako hauek egon ziren: Universidad Camilo José Cela, Universidad de Navarra, Kunsthal (Universidad de diseño), IMH (Escuela Universitaria de Ingeniería Dual), Mondragon Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, BAM (Begoñako Andra Mari irakasleen Unibertsitate Eskola), Bilboko Injeniaritza Eskola. Eskerrik asko guztioi!

Ikastola, txikienei eta haien familiei zabalduz



“

Desde el 17 de enero la zona de juegos de interior de los más txikis, se abre también a las familias en horario extraescolar.

Es un espacio cubierto más, que los días de mal tiempo creemos que puede resultar muy útil, funcional y acogedor sobre todo para las familias de los más txikis de 2 a 8 años, que venís a recoger a vuestros hijos/as a la Ikastola a las 16:30.

”

Urtarrilaren 17tik aurrera, txikienezako barneko jolasgunea eskolaz kanpoko ordutegian ere irekitzen da familientzat.

Estalitako beste gune bat da, eguraldi txarra egiten duen egunetan oso erabilgarria, funtzionala eta gustura egotekoa, batez ere 16: 30ean zuen 2-8 urte bitarteko seme-alabak ikastolara jasotzera etortzen zareten familientzat.

SACZ literatur lehiaketan sarituak



Jon Lorenzo eta Eider Aburto Zornotzako SACZ literatur lehiaketan sarituak izan ziran.

Jon Lorenzok, Batxilergoko 2. mailako ikasleak, lehenengo saria lortu eban nagusien kategorian, eta Eider Aburtok, DBHko 1. mailakoak, erdi-mailako lehen saria.

Elkarrizketa sakonean



Oraingo honetan, euren berezko ekimena erakutsiz ikasturtean zehar hainbat mural artistikoren bitartez txunditu gaituen 4 ikaslegaz egon nahi izan dogu. Orainarte euren lanak blogean edota ikastolan ikusi ez badozuez, ondoko lotura bisitatzen gonbidatzen zaiutugu, euren lanak ezagutzeko. Aiala Moreno, Maialen Junquera, Alaitz González, LH 5. mailakoak eta Hugo Moreno, LH 2. mailako ikasleak dira.

Nondik sortu jatzue mural artistiko honeek egiteko ideia?

Guztiak dagoz mundo mailako egun esanguratsu edo gai bateri lotuta eta ikastolan landu ondoren mural bat egitea pentsatu dogu kasu denetan: bardintasunaren alde, emakumeenganako indarkeriaren aurka, ingurugiroaren alde, euskararen alde, liburuen egunari lotuta, Gabonei lotuta, ...

Eta zein da, zehazki, zuen helburua?

Alde batetik ondo pasatzea, eskulanak egiten gustatzen jakulako eta beste alde batetik irudi baten bitartez gai baten inguruan kontzientziatzea.

Eta zelan antolatzen zarie mural bakoitza egiterakoan?

Gai horrerik lotuta Informazioa bilatzen dogu eta gero muralean zelan ipini pentsatzen dogu guztion artean eta gurasoen laguntzagaz. Asteburuetan egiten dogu, aitaren pabiloiean eta 3 edo emoten doguz lanean.

Eta zer ikasten dozue mural honeek egiterako orduan?

Ba gehien bat Informazioa bilatzen, esku lanak egiten, sortzen jakuzan arazoak edo zailtasunei aurre egiten, ... Adibidez Gabonetako muralak argiak eta guzti eukazan eta hor arazo bat euki gendun baina konpondu gendun azkenean.

Eta, etorkizunari begira, beste muralen bat daukazue buruan?

Bai, bat bardintasunaren inguruan izango da, eta beste bat ezin dogu esan, sorpresa izan da!

Aiala, Maialen, Alaitz eta Hugo, etorkizunean irakaslea, moda diseinatzailea, albaitaria... izango ei doguz. Dana dalakoa izanda ere, sormena, ekimena... eta edozein lanetan baliagarriak izango jakezan hainbat konpetentzia erakusten deuskuez euren mural bakoitzean.

Eskerrik asko, artistak eta aurrera!

Euren lanak ezagutzeko jakinmina piztu badeutsugu, [ondoko loturan klikatzea baino ez daukazu.](#)

Beti ere, aurrez-aurre muralak eskaintzen dauzan detaile eta aberastasuna, argazki batetan islatatzea ezinezkoa dala jakinaz.

“

En esta ocasión, hemos querido estar con con 4 alumnos-as que nos han impresionado a lo largo del curso a través de diferentes murales artísticos. Si hasta ahora no habéis visto sus trabajos en el blog o en la ikastola, os invitamos a visitar el siguiente enlace para leer la entrevista en su totalidad y conocer sus trabajos.

Aiala Moreno, Maialen Junquera, Alaitz González y Hugo Moreno, son alumnos-as de 5º y 2º de Primaria y han preparado por iniciativa propia diversos murales artísticos, con el objetivo de concienciarnos sobre temáticas diversas como la igualdad, la violencia contra las mujeres, el medioambiente, el día del libro o las Navidades.

Puedes leer la entrevista al completo [aquí](#).

”

Lauhitzetan

Lauaxetak bat egin du Nazio Batuen Hezkuntzaren aldeko Mundu Kanpainarekin

Emakumeen indarkeriaren aurkako eguna

Hainbat ekintza garatu ziran Lauaxetan. Batzuk irakasleen ekimenez, besteak Ikastolako Bardintasunerako taldearen proposamenez. Izan ere, talde hau, DBHtik hasi eta batxilergorarteko ikasleek osotzen dabe, gela bakoitzeko ordezkari bi izanik, gizartea aldatzeko ekimen argia erakutsiz.

2. DBHn desgaitasun psikikoaren inguruan aritu ziran Gorabideren laguntzaz

2. DBHko ikasleek sexu orientazioari buruzko proiektua garatu dabe eta familiekin genero eta sexu orientazioaren inguruan formazio-hitzaldi bat jaso eben baita

Eskuragarri dozue iazko ikasturteko [Memoria](#)

DBH 1. mailan, Kultur aniztasunaren inguruko proiektua garatu da

Agenda

Agenda



ESKOLA EGUTEGIA



HH ESKOLA EGUTEGI BEREZIA

Datozen ekitaldiak

- **Txiletar delegaritzaren bisita**
Urtarrilak 25 eta Otsailak 1
- **Batxilergoko Ekintzailatza proiektua**
Otsailak 15etik aurrera
- **Deustuko Unibertsitatearen hitzaldiak:** Hizkuntzen garrantzia munduan, ...
Euskararen garrantzia munduan, ...
Otsailak 25etik aurrera

Gure web orrian sartuz, <http://www.lauaxeta.eus>, agenda atalean, etortzear dagozan ekitaldi edo jakin beharrekoen inguruko Informazioa eskuratu daitezke. Sartu eta ikusi.

Gehiago jakin nahi? Informazio/irakurketa interesgarriak nahi?

Sartu gure web orrian <http://www.lauaxeta.eus> eta klikatu gustokoen dozun iturria!

Facebook, Instagram, twitter, blog-a, Youtube. Guztiak zure eskura!

Lauberri



LAUAXETA
IKASTOLA